

## FRIEDRICH WILHEILM NIETZSCHE

### Gizakiari buruzko kontzeptua

Gizakiari buruzko kontzeptu tradizionala:

- Ezaugarri nagusia eta bereizgarria: razionala izatea
- Instintoak eta irrikak kontrolatu beharra
- Platon, Aristoteles, Descartes, Kant,...

Nietzsche:

- Arrazoimena instintoen zerbitzuan dago.
- Gizakiari dagokion ezaugarri nagusia: instintoa, sena, botere-nahia.
- Gure jokaera agintzen duen "lege" bakarra "bizitzeko sena" da: gure irrikak asetzea, eta horretara zuzenduta dago gure arrazoimena

## FRIEDRICH WILHEILM NIETZSCHE

### Gizakiari dagokion ideala

"Supergizakia"

- Sineste zaharretatik askatua
- Duen lege bakarra bere nahia da
- Ez du sinesten bere gainean dagoen ezertan.
- Ez dago lege moralaren menpe, ez Estatuaren menpe.
- Ez dago "esklabuen moralaren menpe", "jaunen moralaren" arabera bizi da
- Askea eta indibidualista
- Bere bizitza bizitzera ausartzen dena: dituen desioak eta irrikak asetu nahian.

FRIEDRICH WILHELM NIETZSCHE

Gizakiari dagokion ideala

“Supergizakia”

- Ez du sinesten haraindiko munduan
- Ez du sinesten Jainkoarengan.
- Ez dago transzendentzia

- *Lurreko zentzua* aldarrikatzen du
- “**Betiereko itzulera**” sinesten du: Biziaren dinamismoa baita
- Inmanentzia besterik ez

FRIEDRICH WILHELM NIETZSCHE

Gizakiari dagokion ideala

“Supergizakia”

Hiru egoerak

- “**Gamelua**”: “zama onartzea”. Mendebaldeko gizaki tradizionala, moral zaharraren menpe bizi dena.
- “**Lehoia**”: “Jaun eta jabe”. Moral zaharraren zama jasanezina bihurtzen da. Jabeari aurre egiten dio eta bere borondatea inposatu nahi du.
- “**Haurra**”: “errugabetasuna”. Zama guztietatik askatua, bere balio propioak sortzen ditu, eta bere buruaren baiezpena bilatzen du. Gizadi berriaren sorrera: askea eta sortzailea. Inongo moralaren menpe ez dagoena, ongia eta gaizkiaren gaineratik, bere irrika guztiak asetu nahia, Jainkoarengan sinesten ez duena.

## FRIEDRICH WILHELM NIETZSCHE

### Moralari dagokion problema

#### Moral tradizionalari egindako kritika


- Mendebaldeko moralak **naturaren kontra** jo du, **biziaren kontra**
- Bere oinarriak: Platonismoa eta kristautasuna
- Bi munduen arteko bereizketak berekin dakar mundu honetako bizia gutxiestea.
- Moral platoniko-kristaua: gorputza eta bere irrikak menperatu, horretan datza naturaren kontra egotea
- Gorputzetik at dagoen mundu batean, mundu espiritualean sari bat agintzen du. Baina mundu hori ez da existitzen.
- Moral nihilista
- Apoloren balioak Dionisosen balioen gainean: Neurritasuna neurrigabetasunaren gainean, bizitza menperatua bizitza askearen gainean, senak zapaltzea bizi-bultzaren gainean

## FRIEDRICH WILHELM NIETZSCHE

### Moralari dagokion problema

#### Nietzscheren proposamena: "Jaunen morala"

Jaunen morala	Esklabuen morala
<ul style="list-style-type: none"><li>• Indartsuaren morala</li><li>• Biziaren balioak baieztatu du</li><li>• Moral naturala</li><li>• Norberaren borondatea da lege bakarra.</li><li>• Arrazoimenak senaren menpe egon behar du.</li><li>• Supergizakiaren moral paganoa da</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ahularen morala</li><li>• Biziaren kontra jotzen du</li><li>• Naturaren kontrakoa da</li><li>• Norberaren borondateak arauen menpe egon behar du.</li><li>• Arrazoimenak sena menperatu behar du.</li><li>• Mendebaldeko gizakiaren morak platoniko-kristaua.</li></ul>



FRIEDRICH WILHELM NIETZSCHE

Moralari dagokion problema

Nietzscheren proposamena:  
Balioen transmutazio berria

Ahulek beren morala inposatu dute  
Jainkoaren heriotzarekin batera (eta jainko berrien heriotzarekin  
batera) indartsuen morala nagusituko da berriro ere